


XABIER ERIZE ETXEGARAI
**Nafarroako euskararen historia
soziolinguistikoa**

(577 orrialde)



ERIZE, X., 1997,
*Nafarroako
euskararen
historia sozio-
linguistikoa,
1863-1936,*
Iruñea:
Nafarroako
Gobernua.

Xabier Erize Etxegarai (1955 -)
soziolinguistaren doktore-tesia da
hau, EHUn aurkeztua (1997).

Kutxen munduko kudeatzaile
soziala da Erize, baina hizkuntzen
gizarteko bizitzaz ere arduratua.
Alor honetako Irakasle da.

**EHSrako liburuak dituen balio
hauek azpimarratuko ditugu:**

1) *Euskararen ohiko historio-
grafiak EHSrako dituen ekarpen
eta mugak agerian jartzen ditu.*

2) *Inguruko hizkuntza handien
historiografiako ideia nagusituak
erakusten dizkigu.*

3) *Hizkuntzaren Historia Sozia-
lean premiazkoa den diakronia
(denboraren zeharreko dinamika:
1863-1936) nola gogoan har dai-
tekeen iradokitzen du.*

4) *Epe jakin bateko Herrialde
oso bati eta gai hautapen jakin
batzuekin, soziolinguistika
historikoa nola aplikatu den ikus
daiteke hemen.*

*Oro har, Soziolinguistika eta
Historia elkarturik, hizkuntzaren
iragana hobeki ezagutzeko bideak
iradokita daude liburuan.*

Liburuko izenburu osoak zera dio:
*Nafarroako euskararen historia sozolin-
guistikoa, 1863-1936. Soziolinguistika histo-
rikoa eta hizkuntza gutxituen bizitza.*

Izenburuak dioena baino gehiago dakar-
kigu liburu honek, Nafarroakoa deskribatu
eta aztertu aurretik, azterketarako oinarri
teorikoen historia aurki dezakegu bertan, eta
historiografian bezala soziolinguistikan argi-
garri diren obra eta ikertzaileen berri ematen
baitigu lehen bi kapitulu handietan.

Oro har, talaia gorenetik begiratu du
Erizek euskararen arazoa, Mendebaldeko te-
orialari handiak aurrean dituela eta iraganeko
hainbat ikerkuntza eta albistegi argitaraturen
kritika ere eginez.

Euskararen kasua argitzeko eskuzabalki
erabili ditu ikertzaileak, alde batetik hizkun-
tzen historiografia “klasikoa” eta, bestetik,
Soziolinguistika gazteagoaren ekarpenak.

Urratsez urrats, ikus ditzakegu ondokoak:

1) Bonaparteren garaiko euskal komu-
nitatea, bere aurpegi soziolinguistikoarekin.

2) Larraun Ibarreko Uhitzi, gizarte-hiz-
kuntzen arteko bizi-sistema

3) Nafarroako erdal munduan topa
daitezkeen harreman-ikuspegia, kezka, eus-
kararekiko diskurtsoa, hezkuntza eta euskara,
erdaldunak eta euskara.

4) Erdal komunitatea euskararen aurrean:
mentalitatea, ideologia, iritziak, jarduerak.

5) Euskararen alde sortu eta garatu ziren
lan eta balioak: abiapuntuko egoera, mugi-
menduko ideiak, lan-egitasmoa eta ahule-
ziak.